

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

udal langileen aldarrikapenei buruz

Reyes Carrere Zabalak, EH BILDU taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko azaroaren 14an Zerbitzuen Orokorren Batzordean landutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal langileen eta Udal Gobernuaren arteko lan gatazka enkistatuta dago. Udal sail gehienetako langileek urtebete baino gehiago daramate Udal Gobernuko arduradunei ohartarazten kontrataziorik ezak eta langileen kudeatzaileen aldebakarreko erabakiek eragin zuzena dutela haien lan-eskubideetan, eta, hori gutxi balitz bezala, egoera horrek udal-zerbitzuek herritarrei eskaintzen dieten kalitatean ere eragin negatiboa duela.

Langileek beren egoera salatzeko eta gizarteratzeko erabili dituzten ekimenak askotarikoak izan dira, bai foro formaletan (balorazio eta negoziazio mahaietan), bai udaletxe barruko eta kanpoko mobilizazioetan (greba egunak eta protesta ekitaldiak kalean). Korporazioa bera ere, azken urteko udalbatzar guztietan, mobilizazio sindikal baketsuaren lekuko izan da. Pleno aretoan ia sail guztietako langileak ikusi ditugu: mugikortasunekoak, aterpetxeakoak, gizarte-zerbitzuetakoak, suhiltzaileak, udaltzainak, brigadetakoak, administrariak eta abar.

Gobernu honek salaketak entzun, mobilizazioak ikusi eta egoeraren berri izan arren, ez da gai erreakzionatzeko eta gatazka konponbidean jartzeko: ez da gai, edo ez du horretarako borondaterik.

Egia da programatutako LEPak egiteak bitartekotasun-tasa murriztuko duela, baina Langileen Batzordearen iritziz, kontratazio horiek ez dira nahikoak izango eta ez dituzte konponduko gaur egungo kudeaketarekin lotutako gainerako arazoak, eta, beraz LEP horiez gain, beharrezkotzat jotzen dute egiturazko premiazko erabakiak hartzea, egoera behingoz bideratzeko.

Gobernuari batzordean interpelazioa egin genionean, zinegotzi ordezkariaren erantzunak lausoak izan ziren; izan ere, aitortu zuenez, udal langileen egoerak «hobetzeko aukera du, eta konponbidea zaila izan arren, aztertu egingo dugu». Baina gatazka konpontzeko premiazko proposamenen bat edo beste faltan bota genuen. Horrez gain, batzordean, zinegotzi delegatuak aitortu zuen ez zekiela zenbat sailletako zuzendariek jakinarazi dioten Gobernuari komenigarria litzatekeela beren sailletako plantilla handitzea. Eta erantzun horren aurrean, pentsa dezakegu Gobernu honek nekez eman diezaiokeela irtenbide eraginkorrik lan-gatazkari, udal-sailen errealitatea sakon ezagutzen ez badu.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako kontrol-mozio hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen, Langileen Batzordearekin eta udal sailletako zuzendariekin batera, udal-sailen diagnostikoa egitea; bertan, departamentu bakoitzaren behar materialak, antolakuntzakoak eta giza arlokoak jasoko dira, betiere, zerbitzuaren kalitatearen parametroak erabiliz eta langileen lan-eskubideak errespetatuz.
- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari udal-sailletako zuzendariekin eta Langileen Batzordearekin plangintza bat egitea, epe labur, ertain eta luzerako esku-hartzeak zehazteko, gaur egungo lan-gatazka sortzen duten arazoak konpontzeko eta herritarrek jasotzen duten zerbitzua hobetzeko.
- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari behar diren prozedura eta baliabideak aktibatzea, Udaleko sailletako lanpostu guztietan lan-poltsak egon daitezen beti.

Donostian, 2022ko azaroaren 17an

Reyes Carrere,

Portavoz del grupo municipal de EH Bildu